

# "PARTE ZAHARREAN BIZI, PINTZA" AUZO ELKARTEA

**Erregistro zk.:** AS/G/16692/2012  
**Eraketa-data:** 08/02/2012  
**Inskripzio-data:** 04/04/2012  
**Helbidea:** Narrika kalea 31, behea  
**Udalerrria:** Donostia / San Sebastián  
**PK:** 20003  
**Lurraldea:** Gipuzkoa

**Sailkapena:** Auzokoenak  
**Xedea:** Auzokoak

- Auzoari eragiten dioten arazoak bideratzeari begira ekimenak garatzea eta jarduerak gauzatzea, bere kasa edo beste elkarte edo taldeekin elkarlanean. Eta Udal Gobernuan eta erakunde ofizialetan eragitea gai horiek bideratzeko; eta, beharrezkoa balitz, erakunde horiekin lankidetzan aritzea ere. Bere jarduna honako Lan-arloak honako hauek izango dira: hirigintza, auzo-ekipamenduak, osasungintza, ingurugiroa, gizarteongizatea, espazio publikoa eta terrazak, garbiketa eta zaborrak, zarata, segurtasuna, kutsadura elektromagnetikoa, trafikoa, mugikortasuna, aparkalekuak, etxebizitza, uholdeak, kultura- eta kirol-ekipamenduak, haurrentzako, gazteentzako eta aitonaamonentzako txokoak, hezkuntzarako eta aisialdirako txokoak, bizikidetza eta partehartzea, euskara, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, droga ..., eta, oro har, auzoen bizimodua hobetzeari begirako beste edozein lan-arlo. - Aurreko paragrafoan adierazitako lan-arloek ez dute mugatzen, berez, Elkartearen ekimen-esparrua; beste arlo batzuk ere izan daitezke Elkartearen lan-arlo, beti ere, helburua bada hiria eta auzoen bizimodua hobetzea. - Kultura-, kirol- eta aisialdi-jarduera askotarikoak bultzatu eta antolatzea, auzoen formazio eta dibertimendurako. - Paperean zein beste edozein euskarritan argitaratuko diren argitalpenak egin eta zabaltzea, betiere, Elkartearen helburuei begirakoak. - Administrazio- eta epai-erakundeetan beharrezkoak izan litezkeen ekinbideak abiatzea, betiere, Elkartearen helburuak lortzeari begirakoak. - Aurreko paragrafoetan adierazitakoarekin harremana duen beste edozein ekinbide edo jarduera abiatzea, betiere, helburua bada hiria eta auzoen bizimodua hobetzea.



*Erregistroan egun jasota dauden datuak 2025/07/12*

*Erregistroko datuen argitalpen hau informazioa emateko baino ez da*